

Gaurko Mahai Sektorialean Hezkuntza Departamentuak ikasturte honetako eta datozen ikasturteetako LEPen berri eman du. **2021eko ekainean** 2020ko atzeratutako oposizioekin batera **Hizkuntza Eskola Ofizialetako oposizioak egingo dira**, beheko taulak erakusten duen espezialitate banaketarekin.

Deialdia 2021eko urtarrilean argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta izen ematea telematikoa izanen da. Ebaluatzeko eta kalifikatzeko irizpideen xehetasunak epaimahaiek ezarriko dituzte eta ondoren publikatu. Hala ere, zehaztu dute programazioan eta UDetan ez zaiola irakaskuntza hibridoari erreferentzia egin beharko.

Bestetik, espezialitate eta kidego ezberdinetan izena eman dutenen kasuan ez zaie bermatuko antolaketaren aldetik azterketa guztiak egin ahal izatea, soilik bermatuko da espezialitate berdina bi hizkuntzatan egin behar dutenen kasuan. Azterketak egiteko datan konfinaturik edo haurdun dauden izangaien kasuan azterketak beste data batean egingo dituzte.

HEOetako plaza hauekin batera, pasa den astean beste Kidego batzuetako erreposizio tasak onartu egin ziren, espezialitateak zehatu gabe. LHko Irakasle Teknikoen kasuan deialdia ikasturte honetan egingo da, baina azterketak 2022ko ekainean egingo dira. STEILASek Hizkuntza Eskoletako azterketak 2022an egitea eskatu du.

HEOetako lanpostuak // Plazas EOI*

Espezialitateak / Especialidades	EUS	GAZT	RES.
Alemaiera / Alemán	x	3	x
Euskara / Euskara	4	x	x
Frantsesa / Francés	x	2	x
Ingelesa / Inglés	x	8	1
Italiera / Italiano	x	1	x

*2021eko ekainean egingo dira azterketak.

Beste kidegoak // Otros Cuerpos

Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunak // Catedrático de Música y Artes Escénicas	12
Maisu-maistrak // Maestros-Maestras	189
Lanbide H. irakasle teknikoak // Profesorado Técnico de FP	90
Bigarren Hezkuntzako irakasleak // Pofesorado de Educación Secundaria	32